



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO MARTXOAREN 24AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**  
**Jexus Peñagarikano Labaka**

Etorri diren zinegotziak:

Jon Mikel Iglesias Otegui

Arkaitz Fraile Quijera

Maria Iciar Jauregui Huarte

Maria Cristina Goya Amiama

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-  
Echave

Ibarran 2017ko martxoaren 24an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO MARTXOAREN 10EKO AKTAREN ONARPENA**

2017ko martxoaren 10ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko martxoaren 10ean eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO MARTXOAREN 14AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **2.1 ZAMALANEN ERRESERBARAKO SEINALEZTAPENAK. AURREKONTUA**

Kontuan hartuta Euskal Herria kalean ibilgailuekin sortu ohi den arazoa, zamalanen erreserba-gunetan ere aparkatzen baitu askok.

Kontuan hartuta zamalanen erreserba-guneen gehiengoa ez dagoela behar bezala seinaleztatua, ordutegiak ez daude merkatarien beharretara egokituta, eta abar.

Kontuan hartuta Udaleko ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikaria eta aguazila gune bakoitzeko merkatariekin bildu zirela 2016ko ekainean, euren beharrak zein diren ezagutzeko.

Kontuan hartuta aipaturiko bileratan honoko zamalanen erreserba-guneak egokitzea adostu zela:

KALEA	ORDUTEGIA
EH 8	9:00 – 13:30 Astelehenetik ostiralera Arratsaldean TAO
EH 9-11	9:00 – 13:30 Astelehenetik ostiralera Arratsaldean TAO
EH 17	8:00 – 13:30 Astelehenetik ostiralera 16:00 – 18:00 Astelehenetik ostiralera 18:00etatik aurrera TAO 8:00 – 10:00 Larunbatetan
EH 35-41	9:00 – 13:30 Astelehenetik ostiralera Arratsaldean TAO
EH 53	9:00 – 12:00 Astelehenetik ostiralera Arratsaldean aparkalekua



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udal brigadako pabilioian dagoen materiala aztertu ostean bi seinale aprobetxatzerik daudela kontuan hartuta, Rotulos Vicenteri aurrekontua eskatu zaio taulan zehazturiko seinaleztapenak egokitzeko.

Kontuan hartuta Rotulos Vicenteren aurrekontua 456,41 eurokoa dela, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarra Udala zenbateko hori 2017ko Aurrekontu Orokorren bitartez finantziatu ahal duela, 1.0000. 226.431.00.06 partidaren bitartez.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Rotulos Vicenteren aurrekontua onartzea, guztira 456,41 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000. 226.431.00.06 partidatik ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Rotulos Vicenteri ematea (E).

### **2.2 BELARMENDI. KUNETAK GARBITZEKO 4 LANGILEEN AURREKONTUA**

2016ko azaroaren 24an Tolomendik eskualdeko udalei jakinarazi zien, enplegua sustatzeko helburuarekin, Lanbidetik baserri bideetako eta ur bideetako kunetak garbitzeko lau langileen kontrataziorako 24.000 euroko diru laguntza jaso zuela.

Lau langileen kontratazioa Belarmenditik egin da, guztira 6 hilabeterako eta 7 ordu/eguneko lan jardunarekin.

Ibarra Udala herri bideetan kunetak garbitzearekin interesaturik agertu zen, eta lau langile hauek bost egunez Ibarra lan egiteko eskaera luzatu zion Tolomendiri egun horretan.

Ibarra Udala honoko lanak aurreikusi ditu: Argindegitik Izaskunera doan bide bazterrak garbitzea, Molpoido bideko kunetak garbitzea, Belabietako pistan kunetak garbitzea, Uzturreko bidean ubideak garbitu, Izaskun auzoan utzikeriz dagoen lursailetik



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Elutzun/Intsalus aldera.

Kontuan hartuta lau langileak bost egunez lan egiteak 1.288,46 euroko gastua suposatzen diola Udalari.

Kontuan hartuta Ibarako Udalak zenbateko hori 1.0000.210.170.00.00 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Belarmenditik kontratatutako lau langileak Ibarren ur bideen kunetak garbitzen ari direla aintzat hartzea, guztira 1.288,46 euroko zenbatekoagatik.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.210.170.00.00 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Irizpen honen berri kontuhartzaitzari ematea.

### **2.3 HONDAKINAK. KALE HEZITZAILEAK. AURREKONTUAK**

Ibarako Udalbatzak hiri-hondakinen bilketa sistema aldatzea erabaki zuen 2017ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, atez ateko sistematik edukiontzi bidezko bilketara.

Beharrezko den prozedura jarraitu ostean, aipaturiko edukiontziak 2017ko apirilaren 24an ezartzen hastea aurreikusten da.

Herritarrei edukiontzi bidezko bilketa sistemaren informazioa behar bezala zabaltzeko helburuarekin, udal korporazioa osatzen duten bi alderdiek hilabete batez bi kale hezitzaile ezartzea adostu zuten, honoko egutegia kontuan hartuta:

- ✓ Astelehenetik ostiralera 18:00ak eta 23:00ak bitartean
- ✓ Bi asteburutan 18:00ak eta 23:00ak bitartean

Hiru enpresei aurrekontua eskatu ostean:

ENPRESA	ZERBITZUA	EUROAK (BEZ BARNE)
ELKARREKIN 21	Eskatutako zerbitzua	21.961,5
	+	
	Proposamen gehigarriak	18.324,5
	<b>GUZTIRA</b>	



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

		40.286
SPORA	Eskatutako zerbitzua	7.986
ARTELATZ	Eskatutako zerbitzua	8.400

Kontuan hartuta ekonomikoki abantailatsuena Sporaren aurrekontua dela, guztira 7.986 euroko zenbatekoagatik.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.226.162.20.03 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENEA: Sporaren aurrekontua onartzea 7.986 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzailtzak zenbateko hori 1.0000.226.162.20.03 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen demean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzailtzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Elkarrekin 21, Spora eta Artelatz enpresei ematea (E).

### **2.4 ZUHAITZAK ETA LANDAREAK**

Ibarra Udalak urteroko moduan tepeak jarri nahi ditu herriko sarreran (10 tepe), Azkueko errotondan (21 tepe) eta Euskal Herria kaleko farolatan (35 ale) dauden loreontzietan.

Kontuan hartuta Iratze Lorazantza S.L.k 1.312,95 euroko aurrekontua aurkeztu zuela 2016ko abenduaren 14an aipaturiko lekutan tepeak/loreak jartzeko.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.212.172.20.00 2017 aurrekontu partidaren bitartez finantziatu dezakeela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **ERABAKIA**

LEHENA: Iratze Lorezaintza S.L.ren aurrekontua onartzea 1.312,95 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.212.172.20.00 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea (E).

### **2.5 ENERGIA AUDITORIA UDALETXEAN. AURREKONTUAK**

Ibarrako Udalak Udaletxeko argiteria hobetzeko helburuarekin, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak hiru aurrekontu eskatu ditu eraikinaren auditoria energetikoa egiteko:

ENPRESA	EUROAK (BEZ barne)
INERGETIKA	798,60
SEMATEC	1.439,90
I+D ENERGIAS	2.697,09

Kontuan hartuta ekonomikoki merkeena Inergetikaren aurrekontua dela, guztira 798,60 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarrako Udalak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## **ERABAKIA**

LEHENA: Inergetikaren aurrekontua onartzea 798,60 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.601.165.00.01 2017 aurrekontu



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

partidatik ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Irizpen honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Irizpen honen berri Inergetika (E), Sematec (E+G) eta I+D ENERGIAS (E+G) enpresei ematea.

## **2.6 FEIJOA SEUDOLOWIANA**

Euskal Herria 8 kalean, Danon Txokoaren aurrealdean, zuhaitz bat falta da (Feijoa Seudolowiana motakoa) duela hilabete batzuetatik, karga/deskargako kamioiek kolpatzearen ondorioz.

Kontuan hartuta udal brigadako buruak Feijoa Seudolowiana zuhaitz mota hau lortzeko zailtasunak izan dituela, azkenean Landare enpresatik ekartzea lortuta, 240 euroko inguruko zenbatekoagatik.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.212.172.20.00 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENENA: Aintzat hartzea Feijoa Seudolowiana zuhaitz bat Landare enpresatik ekarri izana.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak Feijoa Seudolowianaren gastua ( $\approx$  240€) 1.0000.212.172.20.00 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea Landare enpresaren faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **HIRUGARRENA:**

### **3.- 2017KO MARTXOAREN 14AN BURUTURIKO KIROL BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **3.1- KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK: 2016KO KITAPENA**

Ikusita, 2016ko ekainaren 15ean egindako Kirol batzordeak Kirol arloko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusita, 2016ko urriaren 6an egindako Kirol batzordean erabaki zirela taldeei eman behar zitzaizkien diru-laguntzak.

Ikusita, aipatu batzordean diru-laguntza bi ordainketetan ordaintzea onartu zela: kopuruaren %60, erabakia Gobernu batzordeak onartutakoa, eta gainerako %40 kitapena onartzerakoan.

Ikusita, 2017ko otsailaren 13an amaitu zela 2016ko diru-laguntzen kitapena egiteko epea.

Ikusita, epean aurkeztutako kitapenak era egokian aurkeztu dituztela.

2017ko martxoaren 14an buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea kirol taldeek aurkeztutako kitapenak.

BIGARRENA: Ordaintzea taldeei falta zaien diru-laguntzaren %40a.

Sendi ekintza pilota eskola	1.643,60 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	1.400,00 €
Sokatira taldea:	4.156,40 €
Lauburu Kirol Elkarte	10.400 €
Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	720 €
Lokatzetan Kirol Taldea: Rider	600 €
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma	280 €





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Jakinaraztea akordio hau Kontuhartzailletza eta kirol taldeei (2 hizkuntza).

#### **LAUGARRENA:**

### **4.- 2017KO MARTXOAREN 20AN BURUTURIKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **4.1-TOLOSAKO KOMUNIKAZIO TALDEA: 2017KO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusita, 2015eko apirilaren 24ean Ibarra udalak eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea 2015-2017 lankidetzaren hitzarmena sinatu zutela.

Ikusita, hitzarmen horretako 4. a) klausulak honakoa dioela:

*a) Diru ekarpen zuzena. Egonkortasun ekonomikoa bermatzeko: Udalak urteko 21.500 € emango dizkio (biztanleko 5€) TKTri 2015, 2016 eta 2017. Urteetan.*

Ikusita, aipatu lankidetzaren hitzarmenaren 6. Klausulak honakoa dioela:

*SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a puntu) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpenaren %70a, dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k, beste %30a, abenduan jasoko du urte bereko jardunaren oroitidatzia eta Udalaren udakarpen osoa zurtzeko fakturak edota beraien fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu ondoren.*

Ikusita, TKT-k 2017ko martxoaren 17an, 2017rako egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu zituela

2017ko martxoaren 20an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA.- Ematea Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 21.500 €ko diru-laguntza.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

BIGARRENA.- Ordaintzea Tolosaldeko Komunikazio taldeari 15.050 €, diru-laguntzaren lehen zati gisa (%70).

HIRUGARRENA.- Aipatu kopuru hori 430.3535.00.00 diru partidatik ordaintzea.

LAUGARRENA.- Jakinaraztea erabaki hau Tolosaldeko Komunikazio Taldeari eta Kontuhartzailtza arloari (E).

#### **4.2-UDALEKU IREKIAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PLEGUEN ONARPENA**

Ikusita, udaran udaleku irekiak kontratatzeke garaia dela.

Ikusita, idazkaritzak eta teknikariak prestatu dituela Udalekuak kontratatzeke pleguak

2017ko martxoaren 20an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENA.-** Onartzea aurkeztutako plegu arministratiboak eta teknikoak (I ERANSKINA)

#### **4.3-ARGIA ALDIZKARIA: PUBLIZITATE PROPOSAMENA**

Ikusita, Argia aldizkariak Aktualitatearen Gakoak izeneko liburuxkan publizitatea jartzeko proposamen berri bat egin diola Ibarra udalari.

Ikusita, udalari proposatzen diotela faldoi bat (186 x 55 mm) jartzeko proposamena egin diotela.

Ikusita, faldoi horren prezioa 300 € + BEZ dela.

2017ko martxoaren 20an buruturiko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENENGOA.- Ez kontratatzea publiziterik Argia Aldizkariaren Aktualitatearen Gakoak aldizkarirako, aurten jada beste publizitate batzuk kontratatu ditu eta Argiarekin.

BIGARRENA: Erabaki honen berri eman Argia Aldizkariari (E)

### **BOSGARRENA:**

## **5.- 2017KO MARTXOAREN 17AN BURUTURIKO OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

### **5.1-IBARRAKO HILERRIKO KUDEAKETA ZERBITZUA, PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ZUZENKETAK ONARTZEA**

2013ko apirilaren 15eko 127/2013 alkate dekretu bidez HARGOI S.L. enpresari esleitu zitzaizkion Ibarra hilerriko mantentze-lan eta hileta zerbitzuak. Kontratua 4 urterako egin zen.

kontratua apirilaren 30ean amaitzen denez, zerbitzua lehiaketara atera behar dela eta, 2017ko martxoaren 3an egindako gobernu Batzarrean plegu administratibo eta teknikoak onartu ziren.

Plegu teknikoetako 4. puntuko "Ehorzte-lanak" atalean azaldutako lanetako bat honakoa da:

*"Gorpuzkiak eta hezurak hobitik ateratzea, 10 urte igarotakoan eta gorpuzkiak hezurtegira eramatea familiak horrela nahi badu (hobitik ateratzeak 2012 urtetik 2015era, biak barne, eta hezurtegi guztiak 10 urte baino gehiagokoak badira). Lan hauek kontratuaren prezio barruan daude, ez dira aparte kobratuko".*

Ikusi da hilerrian, gaur egun, 75 nitxo hutsik daudela eta urteko gutxi gora behera 5 inguru betetzen direla, beraz, urte askorako daudela libre eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa 10 urte igarotakoan gorpuzkiak ateratzea. Hori dela eta puntu hori pleguetatik kentzea proposatzen da.

Lan horren balorazio ekonomikoa egin da eta egin behar ez denez, lizitazio prezioa jaitsi egin beharko litzateke 17.000 €tik 16.000 €-ra.

Bestalde, eskaintza ekonomikoa xehetua aurkeztu behar izatea eskatzea komenigarria dela ikusi da, horretarako plegu administratiboan k) eta l) atalak erantsi dira.

2017ko martxoaren 17an buruturiko Obra eta Zerbitzu Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Hilerriko kudeaketa zerbitzua iragarki gabeko prozedura negoziatuaren bidez lau urterako kontratatze prozesua abian jarri ahal izateko, plegu administratibo eta teknikoetan egindako aldaketak onartzea (II ERANSKINA)

**BIGARRENA:** Aldaketak honako enpresei jakinaraztea:

- 1.- HARGOI
- 2.- LANDARRI
- 3.- HARRESPIL
- 4.- ORIA FUNERARIA

## **I ERANSKINA**

**OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA  
KUDEAKETA  
ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.**

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA-  
- Prozedura irekia -**

**ARLO SUSTATZAILEA:** EUSKARA ETA HEZKUNTZA

**ESPEDIENTE KODEA:**

**KONTRATUAREN XEDEA:** Kontratu honen xedea 2017. Urtean Ibarra Udalak sustatzen duen Oporretan Euskaraz udaleku irekiaren antolakuntza eta kudeaketa Zerbitzua kontratatzea da. Bertan parte hartuko duten 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutilak.

**CPV Kodea**

**ESLEIPEN PROZEDURA:** Irekia



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**LANA EGIKARITZEKO EPEA:** Ekainaren 1etik uztailaren 31era bitarte, 2 HILABETEKO EPEA

**AURREKONTUA:** 24.600 euro (%21eko BEZa gehitu beharko zaio ).

**BALIO ESTIMATUA:** 24.600 euro (Gehi %21 eko BEZa). Aipatu bez-a prezioaren barruan ez dago sartua.

**BEHIN-BEHINEKO BERMEA:**

**BEHIN BETIKO BERMEA:** Esleipen prezioaren %5 BEZ gabe

**ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:** Euskara eta Hezkuntza departamentuan

**PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:** 15 egun natural, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

**ESLEIPEN IRIZPIDEAK:**

\* **Eskaintza ekonomikoa: 55 PUNTU**

\* **Beharrezko zerbitzuaren proiektua: 35 PUNTU**

- Oinarrizte teoriko eta proiektuaren helburuak: 8 puntu
- Lan metodologia: 10 puntu
- Zeharkako lerroak jorratzeko kalitatea eta gaurkotasuna: 7 puntu
- Proposamena udalerrriaren errealitatera egokitzea: 10 puntu

\***Hobekuntzak: 10 PUNTU**

## **KLAUSULAK**

### **1. ARAUBIDE JURIDIKOA**

1.-Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 10. artikulua aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- 1.- Baldintza ekonomiko-administratiboen plegu hau.
- 2.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratueta legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, ondorengo arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bateratua onesten duena; azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena; eta ondoko hau izango da arauzko xedapena: 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

- 3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

## **2. KONTRATUAREN XEDEA**

1.- Kontratu honen helburu nagusia 2017. urtean Ibarako udalak sustatzen duen *Oporretan Euskaraz udaleku irekiaren antolakuntza eta kudeaketa Zerbitzuaren kontratazioa* egitea, aurrekontuaren, Plegu honetan eta Baldintza Plegua teknikoan ezarritakoaren arabera.

Bertan parte hartuko dute 4 eta 10 urte bitarteko neska-mutilak.

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du

## **3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Plegu honetan aipatzen diren prestazioak burutzeko epea 2017ko ekainaren 1etik 2017ko uztailaren 31rarte izango da. Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko da epe hori.

Kontratuaren luzapenik ez da aurrikusten.

Zerbitzua epe horretan ematen ez bada, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ohartarazi ez.

#### **4. AURREKONTUA-LIZITAZIO-MOTA**

Kontratuaren aurrekontua eta lizitazio-mota 24.600 eurotako da (%21 eko BEZ barneratu beharko zaio prezioari). Lizitatuzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Lizitatuzaileek egiten dituzten proposamenetan, ulertuko da ondorio guztietarako sartuta daudela kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

#### **5.FINANTZAKETA**

Plegu honetan aipatzen den kontratu gauzatzea behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan 227.337.30.04.2017 partidan.

#### **6. ORDAINTZEKO MODUA**

Kontratuaren prezioaren ordainketa honela egingo da:

Lehenengo ordainketa, urteko prezioaren guttizkoaren %80, udalekuen antolakuntza eta exekuzio lanei dagokiona, aipatu lan horiek eginda daudenean ordainduko da, uztailaren 15erako, beti ere esleipendunak fakturak edo kontratuak aurkeztuz gero.

Bigarren ordainketa, udalekuen kudeaketari dagokiona da, eta urteko zenbatekoaren %20koa izango da. Zenbateko hori jaso ahal izateko derrigorrezkoa izango da kontratuko betebeharrak guztiak betetzea, eta gastuen likidazioa aurkeztu, bai eta gastu horien egiaztagiriak ere, udalekuetako jardueren programari eta balorazioari buruzko informazioa jasotzen duen txostenarekin batera. Era berean, eskuragarri daudenean, TC-1 eta TC-2 agirien kopiak ere aurkeztu beharko ditu.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duen arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak Ibarako udalari formatu elektronikoan



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

bidali beharko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez, helbide honetara: <https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>, horretarako Ibarra Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

Kontabilitate Bulegoa: L01200420  
Organo kudeatzailea: L01200420  
Unitate izapidatzailea: L01200420

## **7. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK**

1.- Prezioa kobratzeko eskubidea seigarren klausulan xedatutakoaren arabera izango da.

2.- Kontratatik honako betebeharrak berezi hauek ditu, Plegu honetan eta arau osagarrietan jasotakoez gainera:

a) Kontratuaren xedeko lanak egikaritu ditu, eta pertsonalki egingo ditu, kontratuan ezarritako klausulak eta haren oinarria den proiektua zorrotz betez, eta Udal teknikari eskudunaren aginduetara. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresik gabe.

b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.

c) Esleipen-egintzan zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.

d) Kontratuaren indarraldi osoan administrazio publikoekin kontratatze gaitasuna mantentzea bermatuko du, eta behartuta egongo da etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri ematera hamabost eguneko epean.

e) Litzitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu, besteak beste: Aldizkari Ofizialetan eta prentsan azaldutako iragarkiek sortutakoak, fidantzen eraketakoak, eta, hala dagokionean, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzeak.

f) Lan Legeriaren, Gizarte Segurantzaren eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legea (Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea) eta lege hori garatzen duten Errege Dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienez), eta, halaber, zerga-alorreko xedapenak ere beteko ditu. Bestalde, Udal Korporazioak eta zerbitzuaren Zuzendaritzak ez dute inolako erantzukizunik hartuko, xedapen horiek ez betetzeagatik etor litezkeen erantzukizunetan.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- g) Kontratua egikaritzerakoan, eta bermealdia bukatzen den arte, antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna izango du.
- h) Lanak egiterakoan nahiz bere obligazioak betetzerakoan Udalari eta hirugarrenei eragindako kalte guztiak ordainduko ditu.
- i) Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan esaten dena errespetatzea, kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz esleipendunak udalaren titularitateko fitxategietan dauden kutsu pertsonaleko datuak lortu beharra izango balu.

Era berean, kontratuaren esleipendunak bermatu beharko du, datuen tratamendua udaleko bulegoetatik kanpo egiten bada, kutsu pertsonaleko datuen tratamendu hori egitea fitxategiaren arduradunak espresuki baimendutakoa izango dela erabiltzaile batentzat edo erabiltzaile-profil batentzat, eta kasu orotan, fitxategi motari dagokion segurtasun maila bermatua izango dela, hori guztia, abenduaren 21ko 1720/2007 Errege Dekretuko 86. artikuluan esaten dena kontuan hartuta, zeinaren bitartez onartzen baita LOPD garatzen duen Arautegia.

## **8. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK**

- 1.- Udalari dagokio kontratuaren ikuskapena egitea bere langile teknikoaren bidez. Horiek jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, betiere lana modu eraginkorrean betetze aldera, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta eta alkateak dituen maila goragoko zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenen kalterik gabe.
- 2.- Administrazioa behartuta egongo da seigarren klausulan xedatutakoaren arabera ezarritako kopurua ordaintzera.

## **9. BERMEAK**

- 1.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.
  - 2.- Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkezten duen lizitatuak behin betiko bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan, esleipen-prezioaren %5-aren baliokidea, BEZ kenduta.
- Berme hori jartzeko epea 10 egun balioudunekoa izango da, bermea jartzeko jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera kontatuta.
- Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermealdia amaitu denean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

3.- Bermeak Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 96. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruaz) eta indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira.

## **10. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA**

Kontratazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Internet bidez ere egingo da publizitatea, Ibarra Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuz ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)).

## **11. PARTE HARTZEKO AHALMENA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA**

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoak duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

### Kaudimen teknikoa:

1. Aurkezten diren enpresak 3 urteko lan esperientzia ziurtatu behako dute udaleku zerbitzuak eman dituzten Administrazioen ziurtagiri bidez.
2. Koordinazio lanak egingo dituen pertsonak unibertsitateko erdi mailako titulazioa izan beharko du, aisialdiko zuzendari titulua eta haur eta gazteekin ekintzatan hiru urteko esperientzia izan duela ziurtatu beharko du. Koordinazio lanetan arituko denaren agiri horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira.
3. Begirale denek batxilergo titulua edo goi mailako heziketa zikloa izan beharko dute (Gizarte eta kultura animazioa edo Gizarte eta Kultur Zerbitzuetako Goi mailako teknikaria). Begirale hauen %40ak aisialdi monitore titulua izan beharko dute (ziurtagiri konpultsatua aurkeztuko da).
4. Langileen %100 nahitaez egiaztatu beharko dute administrazioko 3. Hizkuntza eskakizuna, dagokion ziurtagiria aurkeztuta, 263/1998 Dekretuari jarraituz. Beraz, hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo administrazioko 3. Hizkuntza eskakizunaren pareko beste titulu batzuk aurkeztu ahalko dira.
5. Lan honetan arituko diren orok, ziurtatu beharko du ez dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka egindako delituengatik kondenatua izan epai irmoarekin. Horretarako, Sexu delitugileen erregistroko zentralaren ziurtagiria ekarri beharko da (uztailaren 28ko, 26/2015 legeak egindako, adingabearen



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

babes juridikoaren urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua (aldaketa).

Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkezten duen eskaintzaileak bere kaudimen ekonomikoa finantzaria eta teknikoa egiaztatu beharko du Plegu honetako 14. klausulan adierazten den moduan.

2.- Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkarteak sortu ahal izango dute horretarako. Hori eskritura publikoan formalizatu beharrik ez da izango, harik eta esleipena bere alde egiten den arte. Kasu horretan, enpresariak solidarioki behartuta egongo dira Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarria izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratorritzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitzen den arte.

3.- Lizitatuzaileek honela aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

- Epea: 15 egun naturaleko epean, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

- Bi era hauetako batean:

a) Leihatilan, Ibarra Udaleko sarreran (San Bartolome Plaza, 2), lanegunetan 9:00etatik 14:00 arte.

b) Posta ziurtatuaren bidez, honako helbide honetara zuzenduta: "IBARRAKO UDALETXEA, San Bartolome plaza 2, 20400 IBARRA. Erreferentzia: OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.

Bidaltzaileak egiaztatu egin beharko du bidaltze hori Posta bulegoan egin duen data, eta egun berean, fax bidez (943 67 38 52) edo posta elektronikoen bidez (idazkaria@ibarra.eus) iragarri beharko dio kontratazio-organismoari eskaintza bidali duela. Bi baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onarturko, proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, zehaztutako egun horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatu ahal izateko, Baldintza Pleguak interesatuen eskura egongo dira [www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus) webgunean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Era berean, espediente administratiboa udal bulegoetan aztertu ahal izango da, Euskara eta Hezkuntza sailean, bulego orduetan, eta deialdia jakinarazten den egunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte.

4.- Lizitatzailleek **HIRU GUTUN-AZAL ITXITAN** aurkeztuko dituzte beren proposamenak, izenburu hau jarrita: “*OPORRETAN EUSKARAZ UDALEKU IREKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA*” parte hartzeko proposamena. Gutun-azal horiek eskari orokorrarekin batera sartuko dira sarrera-erregistroan, eta lakratuta eta zigilatuta egon daitezke.

**LEHENENGO GUTUN-AZALAK-** “DOKUMENTAZIOA” azpiztitulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

1.- Bere izenean edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aurkeztu, proposamena auzetuz duen pertsonaren NAN.

2.- Ardurapeko aitortpena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatze debekuen kasuren baten barnean ez dagoela eta Administrazioarekin kontratatze lege ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duena (Ibarra Udalaren eredu normalizatua, II. eranskina)

*\*Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkeztu badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak aurreko 1. eta 2. ataletan adierazitako dokumentazioa eman beharko du. Behin-behineko bermeari dagokionean, aldi baterako enpresa elkarteko partaide bat edo batzuek aurkeztu ahal izango dute, beti ere bermeak partaide guztien izenean era bateratu eta solidario batean erantzuten badu.*

*\*\*Elkarte Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, aski izango da gutunazal honetan idazki bat eranstea sinatzen duten enpresari izenak eta zirkunstantziak adieraziz, bakoitzaren partaidetza zehaztuz eta kontratua indarrean dagoen bitartean Udalaren aurrean guztien ordezkari osoa izango duen pertsona izendatuz.*

*\*\*\*Atzerriko enpresek, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 55. eta 58. artikuluek, eta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

\*\*\*\* *Kontratazio Organoa eta esleipenean parte hartzen duten enpresen arteko komunikazioa, A sobreaan aurkezten den helbide elektronikoaren bidez egingo da. Derrigorrezkoa da helbide hau A sobreaan garbi adieraztea*

\*\*\*\*\* *Kontratua esleitzen den unetik aurrera, bi hilabeteko epea izango dute esleipenean parte hartu duten partaidideek (salbu esleipenean garaile izendatzen den den partaidea) aurkeztu duten dokumentazioa eskatu eta berreskuratzeko. Egin ezean, Udalak dokumentazio osoa suntsituko du.*

**BIGARREN GUTUN-AZALAK** “ESKAINITZA - ESKAINITZA TEKNIKOA” azpтитulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:

- a) Eskaintzak baloratzeko irizpideak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak. Horien artean, plegu honetako 13. klausulan ageri direnak eta batez ere memoria teknikoak. Memoria teknikoak ez aurkezteak lizitatzaileraren bazterrean uztea ekar dezake.

**HIRUGARREN GUTUN-AZALAK** “ESKAINITZA ESKAINITZA EKONOMIKOA” azpтитulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:

1. Eskaintza ekonomikoa, plegu honen I. eranskinean jasotako proposamen ekonomikoa arabera, behar bezala beteta.

Hirugarren gutun-azaleko dokumentazioari buruzko oharra:

\* Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomikorik.

\*\*Prezioen eskaintzaren banakapenean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, guztizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat, eta ofizioz egingo dira oinarritzko prezioa eta BEZ zenbatekoa banakatzeko dagozkion kalkuluak

## **12. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

1.- Kontratazio Mahaia hasierako osaera nominala eta ondorengo aldaketak Ibarra Udalaren kontratugilearen profilean eta web orrialdean ere ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)) argitaratuko da.

Kontratazio Mahaia honako kideekin osatuko da:

- Lehendakaria: Alkatea edo honek eskuordetzen duen zinegotzia
- Udal Kontuhartzailea
- Udal Idazkaria



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Euskara Teknikaria

2.- Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Lizitatzailleek aurreko klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko dituzte aurkeztutako dokumentazioaren gutun-azalean, eta ez da onargarria izango dokumentu horiek berak beste lizitazio baterako erabiltzea, nahiz eta beste lizitazio horretako plikak irekitzeko ekitaldia aldi berean egin.

Mahaiak akats materialak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, lizitatzailleak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak faxez edo posta elektronikoz egingo dira lehentasunez, enpresak lizitazioan aurkeztu duen dokumentazioan aipatutako zenbaki edo helbidera zuzenduta.

3.- Kontratazio Mahaiak Ibarra Udaletxeko bulegoetan irekiko ditu proposamenak (San Bartolome plaza, 2) proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren kontratazio profilean adieraziko da zein egunetan egingo den.

Ekitaldi horretan, onartutzat eman diren kontratu-eskaintzen bigarren gutun-azala bakarrik irekiko da (eskaintza teknikoa), ekitaldi publikoan (hau ere kontratazio profilean adieraziko da enpresa interesatuek parte har dezaten).

Hasierako deialdi hau mantentzea nahiz balizko aldaketak argitara emango dira kontratugilearen profilean ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)), jakinarazteko egoki irizitako beste edozein moduren kalterik gabe.

4.- Bigarren gutun-azalean jasotako atalei dagokien eskaintza baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzen hirugarren gutun-azala (eskaintza ekonomikoa) irekiko du, hori ere ekitaldi publikoan. Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratugilearen profilean argitaratuko da ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)), jakinarazteko egoki irizitako beste edozein moduren kalterik gabe.

5.- Azkenik, Mahaiak kontratazio-organoari aurkeztuko dio esleipen-proposamena.

6.- Kontratazio Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izan ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak baloratzeko beharrezko direla irizitako txosten teknikoak eta juridikoak.

### **13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Honako irizpide hauek kontuan hartuko dira esleipena erabakitzeko:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## 1.- FORMULA BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (hirugarren sobrea).

1. Eskaintza ekonomikoa: 55 puntu gehienez.

Honako formula hau erabiliko da eskaintza ekonomikoan emango diren puntuak kalkulatzeko.

$$P = \frac{55 \times BO}{BM}$$

P= puntuazioa; BM= jaitsiera handiena; BO= eskaintzaren jaitsiera.

Aditzera eman behar da, prezioari dagokion esleipen-irizpidea aztertzeke orduan, eskainitako zenbatekoak izango direla kontutan, BEZa gabe alegia.

## 2.- FORMULA GABE BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK (bigarren gutunazala)

### 2.1. BEHARREZKO ZERBITZUAREN PROIEKTUA: GEHIENEZ 35 PUNTU

- a. Oinarritze teoriko eta proiektuaren helburuak: 8 puntu gehienez
- b. Lan metodología: 10 puntu gehienez
- c. Zeharkako lerroak jorrazeko kalitatea eta gaurkotasuna: 7 puntu gehienez
- d. Proposamena udalerraren errealitatera egokitzea: 10 puntu gehienez

### 2.2. HOBEKUNTZAK: GEHIENEZ 10 PUNTU

## 14. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- Administrazioak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamenik onuragarrieneri esleitzeko, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposamenaren balio ekonomikoari kasu egin beharrik gabe, edo, bestela, lizitazioa esleitu gabe utz dezake, betiere erabakia esleipen-irizpideen arabera hartuz.

2.- Esleipen-proposamena erabaki ondoren, Kontratazio Mahaiak errekerimendua egingo dio abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatuileari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

- Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak, baldintza hauek aurretik egiaztatuta geratu ez badira.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Osaera edo aldaketa eskritura, hala behar badu, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza, jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta, hala behar izanez gero.
- Eskaintzaren sinatzailearen ordezkari itza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsone horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)
- BEZatik salbuesita dagoen entitate bat izango balitz, salbuespen bat esleituta duelako, hori frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honela:
  - Erakunde finantzarioen txostena edo, hala dagokionean, arrisku profesionaletarako kalteordain-asegurua egiaztatzea.
- Kaudimen teknikoa egiaztatzea, honela:
  - Enpresaburuek azken 10 urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda (gutxienez 3 urteko esperientzia frogatu beharko dute udaleku zerbitzuak ematen); horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziz. Egindako lanak edo zerbitzuak organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, hartzailea alor publikoko entitate bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, horrek berak egindako ziurtagiriaren bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresaren aitortzaren bidez; hala dagokionean, aginte eskudunak ziurtagiri horien berri emango dio zuzenean kontratazio organoari.
  - Koordinazio lanak egiten dituen pertsonaren titulazioen aurkezpena (unibertsitateko erdi mailako titulazioa, aisialdiko zuzendariaren titulua eta haur eta gazteekin ekintzatan hiru urteko esperientzia duela frogatzeko ekintzak egin dituen lan tokietako ziurtagiriak).
  - Langile denen 3. hizkuntza eskakizuna dutela frogatzen duen ziurtagiria.
  - Langile denen sexu askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka egindako delituengatik epai irmo bidez kondenatua izan ez direla ziurtatzen duen dokumentua (Sexu delitugileen erregistroko Zentralaren Ziurtagiria uztailaren 28ko, 26/2015 legeak egindako, adingabearen babes juridikoaren urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua aldaketa).
- Beste edozein dokumentu, kontratazio-organok eskatuta, kontratatze gaitasuna duela egiaztatze edo kontratua egikaritze erabiltzera konprometitutako bitartekoak benetan eskura dauzkala egiaztatze.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Dagokion behin-betiko bermearen aurkezpena.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzailleak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabeko hurrengo lizitatzailari.

3.- Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

4.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Ibarra Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko da ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)).

Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, 156.3 artikulua arabera zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

5.- Kontratuaren esleipena bi hilabeteko epe maximoan egingo da, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzailleek eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

## **15. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena jaso ondorengo hurrengo hamabost egun baliodun baino geroago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Kontratua formalizatzeko egintza Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan egingo da (San Bartolome plaza 2, 1. solairua), Zerbitzuak hala eskatuta.

Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

Kontratua formalizatu ondoren, GAO n eta Ibarra Udaleko kontratugilearen profilean ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)) argitaratuko da.

## **16. KONTRATUA EGIKARITZEA**

Era berean, jarduerarekin hasi baino lehen, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak beteko dituzten langileei dagokienez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela, hori guztia urtarilaren 30eko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

171/2.004 Errege Dekretuan jasotzen dena kontuan hartuz, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dekretuan, hain zuzen.

1.-Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

